

## MUko ikasleak goi mailan surfeatu zuten Uhainan (Frantzian)

2014/04/01

Azken ikasturteetan bezala, Frantziako unibertsitateetako kideek, beraien surfeko txapelketan parte hartzera gonbidatu gaituzte.

Bertan MUko 7 ikaslek parte hartu eta beste batzuk filmaketa egitera gerturatu ziren, 60 ikasle elkartzen dituen txapelketan.

Larunbateko egoera gogorra zen, eta olatu indartsuak izan zituzten, Mikel Elizalde GEPeko ikasleak, lehengo tandan surf tabla apurtu bazuen ere, bere txanda pasatzea lortu zuen.

Niko Ormazabal, Edgar Mulder (Enpresagintzako ikasleak ) eta Koldo Uria (GEPko ikaslea) beraien lehengo txandak ere pasa zuten.

Azken biak, hirugarren txandan kanporatuak izan ziren, eta besteak final laurdenetan, lan bikaina burutu zuten surflari onak (batzuk profesionalak) biltzen dituen txapelketan.

Igandean jokatu zen Longboardeko txapelketa. Bertan beste hiru partaide genituen, Asier Viteri eta Diego Larrunbide (Enpresagintzako ikasleak) final erditan kanporatuak izan ziren eta Gabby Huertasek (Enpresagintzako ikaslea), nesken garaipena lortu zuen, Mondragon Unibertsitatea podiumeko gorenera eramanez.

Zorionak Gabby eta eskerrik asko denoi egindako lanagatik.

Datorren ikasturtean errepikatzeko gogoz.



Gabby Huertas Uhainako podiumean